



Iraunkortasuna sustatzen duten nekazal produktuen kontsumoa

8

Definizioa:

Eusko Label bereizgarria duten eta ekologikoak diren nekazal produktuen kontsumoa zenbatzen du Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Eusko Label bereizgarria duten nekazal produktuak Euskadin produzituak dira eta Arautegi Tekniko espezifikoek ezartzen dituzten kalitate-maila eta bereizleak batzen dituzte.

Nekazal produktu ekologikoak, bestalde, ekologiko moduan zihurtatuak izan dira indarrean dauden legediak "ekologiko" hitzaren erabilerari buruz dioenean oinarrituz.

Azpiadierazlea:	Unitatea:
8.A. Eusko Labeleko produktuen kontsumoa EAEn	Merkaturatutako bolumena
8.B. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikora bideratutako azalera Bizkaian.	Nekazaritza ekologikoa (Ha.)
	Aldatzen (Ha.)
	Praktiketako lehen urtea (Ha.)

Erlazionaturiko Iraunkortasun-printzipioak:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
✓	✓	✓		✓	✓		✓		✓

Kalkulurako metodologia:

Eusko Label bereizgarria duten eta ekologikoak diren nekazal produktuen kontsumoa zenbatzen du

Neurketa maiztasuna:

Urtero..

Informazio-iturria:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.